

## Arturo Campion nazionalista al zen?

Deia, 1983-07-20.

Euskal Herriko semerik zintzoena bezala jokatu zuen gizon hau nazionalista eta abertzale ote zen?

*Auñamendi* Enziklopediak ezetz dio:

"Políticamente no se puede señalar a Campion afiliado a ningún partido político aunque en su primera juventud se sintiera republicano federal. (...) Deja pronto su republicanismo (...) pero se queda con su federalismo, (...) no es ya ni republicano, ni monárquico, ni carlista, ni integrista, *ni siquiera nacionalista vasco*; (...) toda la obra de Campion es en pro del lema que estampa en sus libros: 'Euskalerrriaren alde'".

Hau da nik proposatzen dutan gaiaz Auñamendik egin dion aipamen zehatzak diona.

Bestalde, 1934ean Donostian berriz premiau zen Campionen nobelarik aipatuena den *Blancos y negros*-i don Carmelo de Etxegarai-k egin zion hitzaurrean gauza bera esaten da beste hitzetan: "Se enderezan (sus obras) a la defensa de los ideales regionalistas, enaltecidos con calor y elocuencia, y opuestos a los desvaríos de los ideólogos y de los fabricantes de utopías".<sup>1</sup>

Baina ez nengoen konforme; ikusi nuen nonbait "nazionalista" bezala aitortzen zuela bere burua.

Bila ibili naiz, ikuspuntu hau zerbaiten argigarri izan dadin.

Eta Javier Corcuera-n aurkitu dut, honek eusko abertzaletasunaz egin zuen ikerketa zehatzean.<sup>2</sup> Ez da egile honen iritzia, honek aurkitu duen testo bat baizik: hasten da Corcuera honek uste duen zerbait adierazi nahian, alegia, nahiz eta Campion hasieratik beste tradizionalagoak ziren Eusko Alderdien inguruan ibili (eta Sabino Aranak ere salatzen du Campionen ibilbide hau gogorki) laster hurbilduko zela nafarra abertzaletasunera. Aranarekin diferentziak bazituen ere! eta, egia, Donostiako Centro Vascon 1906an urtarrilak 7, Sabin hil eta bi urte gero, eman zuen hitzaldian esan zituen hitzak: "*Fueristas* nos llamábamos con orgullo en días de mayores riesgos que los actuales, puesto que circula un vocablo más gráfico, más intenso y totalmente expresivo y que no se presta a que bajo él se cobijen los éuskaros que quieren las cosas a medias, o sofisticadas, que es lo mismo, *sin renegar un ápice de mis antecedentes, ni profesar nuevos dogmas, ni adoptar nuevas actitudes, antes bien continuando mi modesta historia, renuncio al antiguo calificativo, y desde hoy me llamo y llamaré nacionalista*".

Eta hau idatziz geratu zedin, urte berean inprimatu zen hitzaldia: *Nacionalismos, fuerismo y separatismo*, Tolosan, Eusebio Lopez-en moldiztegia (41.go orrialdea).

<sup>1</sup> Euskalzaleak, Beñat idaztiak, Donostia, 1934.

<sup>2</sup> *Orígenes, ideología y organización del Nacionalismo Vasco, 1876-1904*. Siglo XXI de España Editores, S.A. Madrid, 1979, 128-129 orr.